

Parrokixako errelikiak

Ermuko Santiago Parrokixia sasoi baten Bizkaiko errelikia kopururik haundiñaren jabe legez agertzen da. Honek aberastasun erakustaille eta herrixaren deboziño erakartzaille ziran, fededunak mirarixak eitzeko errelikien indarrian oso-osuen siñisten eben eta.

Gaur egun jakin badakigu leienda asko dauala horren bueltan eta negozio haundixa zirala erromes bidia ziran Ermua moduko herrixendako. Iñork ezin dosku ziurtau ikaragarritzko balixua emoten jakuen harek tela, hazur edo ohol zatixak jatorritzkuak ziran ala ez, ehundaka urte pasau dira eta saldu zitxuana-ren etikan sartu biharko giñalako.

José Ramón de Iturrizak, 1.936.urtian argitara emon eban bere "Bizkaiko Historia Orokorra" liburuan zera dakar jasota:

"Aipatutako Santiago Elizan ondratzen dira: Hamaika Mila Birjiña eta Martirien bi buru eta hezurak. Baita Sta. Catalina, Sta. Cecilia, Sta. Margarita eta S. Bernardoren errelikiak. 1.580.urtian Felipe II erregearen validoa, aholkularia zen Domingo de Bustinza ermuarrak Milandik ekarritakoak dira. Kultoa ematen zaie ere 1.599.urtean Santiago de Bustinzak Colonia Agripinatik ekarritako S. Nicolás, S. Bernardo, S. Pedro, S. Blas, Sta. Cristina, Santiago Txikia, Sta. Gertrudis, Sta. Barbara, Etiope Santoak, S. Bartolomé, S. Lorenzo, S. Valentín eta Amabirjiñaren jantziaren errelikiak. Gordetzen dira baita ere Ume Inuzente Santoen buru bat eta Sta. Poloniaren agin bat."

1965. urtian Batikanoren II. Kontziliuak liturgia arau barrixak erabaki zitxuan, tartian mezia aurrez-aurre fededunei begira emon bihar zala eta ez lepua emonda. Honek parrokixako altara nagusixa egokitzeko premiñia ekarri eban; barriztapenak aprobetxau



Elizaren altarpian daoz errelikiak.

ziran errelikiak leku esanguratsu baten kokatzeko eta zer hoba altara bera baiño. Baiña penagarrixa zala zuluak eitzia altararen gaiñeko marmol ederrari, honen azpitan gordetzia erabaki zan.

SANCTORUM
RELIQUIAE

ETIAM + HIC (hemen bertan dagoz) idatzitxa dakar lau ertzetatik ondo itxitxa dauan altarapeko harlosatxuak. Harek zer ezkututzen daben, ez jakin. Baiña ondo bistan eta danok apreziaitzeko moduan badago errelikiak jirau zitxuen Bustinzatarren familiako beste

baten dohaitza. Lopes Bustinzak 1.613. urtian oparixan emondako Amabirjiñaren alabastrozko irudi gotiko bat dago altararen eskumakaldian. Alemaniako Coloniako Katedralekoa izan zan eta haren hanketara D.O.M. Eius O.Matri Sanctiss. Dicavit Lopes Bustinza MDCX irakurri leike.

Goian zerrendauta dagozen horrek errelikien artian, Sta. Margaritarenak etorri zirala irakurri leike. Sasoi bereztuan santa horren izenian moja konbentu bat eraikitzeke lehen pausuak emoten hasi ziran.

Estibalitz González




optika
itze

✓ ENTZUMENAREN DOHAINEKO KONTROLAK
✓ AUDIFONOETAN AZKENENGO TEKNOLOGIA

Probaleku, 7 Tfnoa. 943 17 46 71

943172665 ERMUA



Zubiaurre 20

*Pintxoak, otartekoak...
eta hostalarien umore ona*